



BALIO PROPOSAMENA

Prezio baxuagoak edukitzea enpresen ekoizpen kostua murriztuz eta **birziklapena sustatzea**, beste enpresen hondakinak birziklatzen eta beste bizi bat ematen.

AMANAI S.L-en, enpresek sortzen dituzten hondakin metalikoak, plastikoak... jasotzen ditugu; horrela, hondakin horiek funditzen eta birsaltzen ditugu lehengai bezala, irtenbide ekologikoak eta jasangarriak eskainiz; gure bezeroen beharrak asetuz.

Gure balio-proposamenak oinarri hauek ditu:

Birsalmenta:

Funditu ondoren, metalak *birsaltzeko* zerbitzua eskaintzen dugu, gure bezeroei kalitate handiko materialak prezio lehiakorrean eskuratzeko aukera emanez.

Lehengaiak merke lortzen ditugunez, gero saltzerako orduan prezio merkeagoak eskaintzen ditugu; bestealde, hondakin metalikoak ematen dizkiguten enpresei eskaintza hobea egingo zaie.

Metalen eta aleazioen aukerak:

Metalen eta aleazioen aukera zabala eskaintzen dugu, gure bezeroek hainbat industrian dituzten behar espezifikoetara egokituz.

Aluminioarekin, plastikoarekin... lan egiten dugu, produktu aukera desberdinak eskainiz.

Ekonomia zirkularrarekin konprometitua:

Gure fundizio-prozesuan praktika ekologikoak eta arduratsuak ezartzen ditugu, ingurumen-inpaktua gutxitzeko.

Ekonomia zirkularra sustatzen dugu, beste enpresen aluminioa eta plastikoa birziklatuz eta hondakinak murriztuz eta horrela gure praktika ekologikoak bermatuz.

Pertsonalizazioa:

Bezero bakoitzaren beharretara egokitzen gara, bezero arreta pertsonalizatuak eta malguak eskainiz.

